

**EUSK.** (Más bajo en castellano)

## **IRAILAK 14, IGANDEAREKIN, IRURTZUN ETA ARAKILGO BERTAKO GANADU AZOKAREN XII. EDIZIOA OSPATUKO DUGU.**

Erakunde antolatzaileok Irurtzun eta Arakilgo Bertako Ganadu Azokaren XII. edizioa aurkeztera gatoz. Beste behin ere proposamenez beteriko programa izango duzue zai, bai azoka egunerako eta bai aurreko egunetarako ere. Iganderako egun osoko plan proposa da, adin guztientzako: azoka, animazioa, bazkari herrikoia eta ikuskizunak. Ez galdu arratsaldeko Herri Kirol desafioa, Irurtzun eta Arakilgo taldeen artekoa, ezta emakumezkoen Harri Jasotze erakustaldia ere!

Irurtzun eta Arakilgo Bertako Ganadu Azokak nekazaritza herrikoia erakusgarri eta bertoko elikadura eredu baten aldeko aldarri izatea du helburu.

Igandekoa, XII. edizioa izango da eta, aurten ere, plazan, ekoizleen azoka gardena eta artisauen eremuak egongo dira, 10:00etatik 14:30era bitarte. Bertan, tokiko laborarien kalitatezko eta ekoizpen agroekologikoko produktuak dastatzeko aukera izango duzue. Azokaren esparruan Arbaso elkarteko artisauen postuak ere egongo dira.

Horrekin batera, frontoi eremuan Euskal Herriko arraza desberdinak ikusi eta ezagutzeko eremua egongo da: tartean Ardi Latxa (muturgorri eta burubeltza), Sasiardia, Burgete eta Jaka behorrak, Euskal Txerria, eta abar.

Goiza trikitilari eta gaita-jotzaileek girotuko dute, eta azokaren eremuan talogileak, forja erakusketa, haurrentzako jokoak, nekazaritzako tresnen erakusketa, animazioa, eta abar egongo dira. Aurtengo programan honako ekintzak proposatzen dizkizuegu:

**10:00etan azokaren irekiera**, plazan, goiz guztian zehar, 14:30ak arte, produktuak eta artisautza erosteko aukera egongo da, bai eta abereen erakusketara hurbiltzeko ere.

**11:00etan** Frontoi atzealdean, **Zaldi ferraketa erakustaldia** izango dugu, Aitor Chaparroren eskutik.

**12:00etan Artzai Gazta Dastaketa eta Txapelketa Herrikoian** parte hartzeko aukera izango dute bertaratuek, tiketak Informazio puntuan eskuratu daitezke..

Goizean zehar **haurrentzako joko eta tailerrak**, taloak, soka lantze tradizionala, forja artisauaren erakustaldia, tailer eta ofizioak eta abar. egongo dira.

**15:00etan Bazkari Herrikoia Pikuxar elkartean.** Inguruko ekoizleen produktuekin osatutakoa. Tiketak Irurtzun eta Arakilgo Udaletxeetan eta Pikuxarren eskuratu daitezke, irailaren 11a baino lehen. (prezioa 20€)

**18:30ean** Bazkalostea, Arakil eta Irurtzun arteko **Herri Kirol DESAFIOAK eta Emakume Harri jasotzaileen Erakustaldiak** girotuko dute. Gainera, **bertsolariak ere** egongo dira aurkezleari laguntzen.

Honetaz gain beste ekintza bat izango dugu aurretik. **Irailaren 12an, ostiralean**, arratsaldeko **19:00etan, Euskal Herriko ardoen dastaketa** egingo

da **Hiriberriko Txitera elkartean**. Dastaketa **Beatriz Etayo sumiller-ak** gidatuko du. Izen emateak irekita irailaren 10a arte, Arakilgo udaletxean. ([arakilkultura@gmail.com](mailto:arakilkultura@gmail.com) / 634 584 226)

Igandean, irailak 14, ez ahaztu, elikatzen eta zaintzen gaituen nekazaritza eredu herrikoi eta sostengarria ospatzera animatzen zaituztegu.

---

## CAST

### **EL PRÓXIMO 14 de SEPTIEMBRE, DOMINGO, CELEBRAMOS LA XIIª EDICIÓN DE LA FERIA DE GANADO AUTÓCTONO DE IRURTZUN Y ARAKIL.**

Desde las entidades organizadoras presentamos la XIIª Feria de Ganado Autóctono de Irurtzun y Arakil. Una vez más, esta edición viene con un programa lleno de actividades tanto para el mismo día de la feria, como para los días previos. El del domingo promete será un excelente plan de día para todas las edades: con mercado, animación, comida popular y espectáculos de la tarde. ¡No os perdáis el Desafío de Herri Kirolak entre Irurtzun y Arakil, ni la exhibición de Levantamiento de Piedra femenino de la tarde del domingo!

La Feria de Ganado Autóctono de Irurtzun y Arakil reivindica una agricultura popular y una apuesta por un modelo alimentario local, consolidándose año a año y convirtiéndose en referente y transmitiendo los valores que representa.

En esta XII edición la plaza de Irurtzun volverá a acoger el mercado transparente de productoras de 10:00 a 14:30. Allí se podrán adquirir y degustar productos de calidad y agroecológicos de los productores locales. En el recinto de la feria habrá también puestos de artesanía de la Asociación Arbaso.

Así mismo, en la zona del frontón se situará la exposición de las diferentes razas ganaderas autóctonas de Euskal Herria: Ardi Latxa (Rubia y Burubeltz), Sasardi, Vaca Betizu, caballo de raza Burgete y Jaka Navarra, cerdos Euskal Txerri, burros Euskal Astoa, etc.

Durante la mañana, que será amenizada por trikitilaris y gaiteros, además de juegos, exposiciones, talos, etc. se han organizado las siguientes actividades para disfrutar del día y acercarse al sector agrícola:

**10:00h Apertura del mercado**, en la plaza, durante toda la mañana, hasta las 14:30 horas, donde se podrán adquirir productos y artesanía, así como disfrutar de la exposición de ganado en el frontón.

**11:00h Demostración de herraje de caballos** en directo de la mano de Aitor Chaparro, detrás del frontón.

**12:00h Cata y Concurso Popular del Queso de Pastor**, adquiriendo los tickets en el punto de información.

**15:00h Comida Popular en la Sociedad Pikuxar**, con un menú elaborado con productos de la zona. Los tickets se podrán adquirir antes del 11 de septiembre en los Ayuntamientos de Arakil e Irurtzun y en Pikuxar. (Precio: 20€)

**18:30h Desafío de Herri Kirolak entre Irurtzun y Arakil**, además de exhibición de **Levantamiento de Piedra Femenino**. También **habrá bertsolaris** amenizando el espectáculo.

Además, **el 12 de septiembre, viernes a las 19:00** tendrá lugar una **cata de vinos de Euskal Herria** en la **Txitera de Hiriberri**. La cata será dirigida por la **sumiller Beatriz Etayo**. Inscripciones hasta el 10 de septiembre en el ayuntamiento de Arakil. ([arakilkultura@gmail.com](mailto:arakilkultura@gmail.com) / 634 584 226)

El próximo 14 de septiembre os animamos a celebrar y disfrutar de la agricultura popular y sostenible que nos alimenta y cuida.